

IKUSMIRAN 16

Euskal Herriko langileriaren
lan eta bizi baldintzak

2024ko OTSAILA

16

Ikusmiran 16 | 2024ko otsaila

Euskal Herriko langileriarean lan eta bizi baldintzak

Bilatzailea

Sar Hitza	5
ONDORIO NAGUSIAK.....	6
LAN MERKATUA GERO ETA PREKARIOAGO DA	8
Afiliazioak gora egin du, bereziki egoera zaurgarrian dauden kolektiboen artean	8
Lan baldintza prekarioak dituzten sektoreetako afiliazioa da igo dena	9
Lan baldintza prekarioak kronifikatu dira	9
4 emakumetik batek lanaldi partziala du	11
Langabeziak enpleguaren errealitatearen adierazle izateari utzi dio.	11
ZAINITZA SEKTOREA FEMINIZATUA, PREKARIOA ETA PRIBATIZATUA	11
EGUNEROKO BIZITZAK ETENGABE GARESTITUZ JARRAITZEN DU	12
KPI igoeraren arabera soldata igoerarik ez: langileok erosahalmenean galera izan dugu	13
Oinarrizko lan baldintzen aldeko lan gatazkak areagotzen ari dira.....	15
PENSIONISTAK EROSAHALMENEAN GALERA METATUA DUTE	15
ETXEKO KONTSUMOA BEHERANTZ DOA, OINARRIZKO PRODUKTUETAN GEHIAGO GASTATU ARREN	17
ABERASTASUNAREN BANAKETA GERO ETA DESOREKATUAGOA, JENDARTE GERO ETA DUALIZATUAGOA	17
Gini indizea	18
S80/20 koefizientea	18
BPGrekiko soldatek duten pisua beherantz	18
GERO ETA HERRITAR GEHIAGO POBREZIA ETA BAZTERKETA SOZIAL ARRISKUAN.....	19
Gabezia material eta sozial larria	20
BIZI BALDINTZA GERO ETA KAXKARRAGOAK EGON ARREN, OINARRIZKO ESKUBIDEAK UNIBERTSALIZATZETIK URRUN.....	20
Etxebizitza gero eta garestiagoa da	20
Biztanleria pobreak gero eta proportzio handiagoak du etxebizitza gastu altua	21
Etxebizitza beharra duten herritarren %80,5ak ez du diru sarrerarik edota dituen diru-sarrerak ezegonkorak edo ez-nahikoak dira.....	21
Osasungintza pribatizatzen jarraitzen dute, zerbitzuaren kaltetan	22

SAR HITZA

Eskuartean duzuen, Euskal langileriaren lan eta bizi baldintzak aztergai dituen 16. Ikusmiran da. Beti bezala, gure ahalegina izan da Euskal Herri osoko langileen lan zein bizi baldintzak aztertzea, baina azterketa prozesuan agerizko zailtasunak izan ditugu. Egoera eraldatzeko, errealitatea ezagutzea funtsezkoa den neurrian, eremu honetan ere burujabetza aldarrikatzeak gure herriaren garapenarentzat onuragarria izango delakoan gaude.

Testuinguru sozioekonomikoari dagokionean, Europar Batasuna atzeraldi ekonomiko egoeran dago, BPG-aren bilakaera negatiboa kontutan hartuz. Honek, indarrean jarriko diren politika publikoen norabidea baldintzatu dezake eta erabaki politikoaren ondorioz murrizketa berrien aurrean kokatu.

Langile klasea, ordea, azken urteetako krisien ondorioak bizkar gainean dituela eta lan baldintzatan prekariedade orokortu batetik egin beharko diogu aurre etorkizuneko erronkei. 50. urteurrenaren testuinguruan LAB sindikatuarekin eskuz esku egingo dugu bidea.

ONDORIO NAGUSIAK

Jendartearen dualizazio egoeraren sakontze baten aurrean gaude non prekariedade egoera nagusia den, egiturazkoa. Bizi zein lan baldintza duinak edo oso onak dituztenen eta prekariedade bizi direnen arteko arrakala gero eta handiagoa da. Hego Euskal Herriko 25 eta 64 urte arteko biztanleriaren %53,52a dago prekariedade ekonomiko egoeran eta horretan sakontzeko baldintzak ematen ari dira, sortzen diren enpleguak prekariedade sakontzen duten sektore ekonomikoetan sortzen direlako eta lan baldintza duinak dituzten sektoreetako enplegua suntsitzen delako. Era berean, langabeziaren beherakadarik nabarmenena, egoera zaurgarrian dauden kolektiboetan gertatzen ari da (emakumeak, gazteak, migratzaileak...), non bizi unitatearen egoera sozioekonomiko kaxkarrak enplegu prekarioa bultzatzen ditu, kolektibo hauei lan baldintza prekarioak eskaintzen dituen lan merkatuan.

Enpleguak iadanik ez du bermatzen prekariedade eta pobrezia egoerari bizkarra ematea, gero eta gehiago baitira enplegua edukita prekariedade egoeran bizi direnak, ez dituztelako diru-sarrera nahikoak bizitza duina bermatzeko.

BI HERRITARRETIK BAT EGOERA PREKARIOAN BIZI DA

Langabeziak aspaldi utzi zion Euskal Herriko lan merkatu zein enpleguaren joeren adierazle izateari. Egoera errearen zati bat besterik ez du islatzen eta enpleguan kronifikatzen ari den prekariedadearen egoera ezkututzen laguntzen du. Izan ere, gaur egun, enpleguak ez du bermatzen bizitza duina garatzeko diru-sarrera nahikorik.

Hego Euskal Herriko 25-64 urte arteko biztanleriaren %53,52a egoera prekarioan bizi da, bi herritarretik batek ez du diru-sarrera nahikorik bizitza duina bermatzeko, enplegua eduki arren.

Prekariedade Indizearen azterketa adinean gora egingo bagenu, PENSIONISTEK prekariedade egoeran dauden herritarren kopurua zabalduko lukete. Izan ere, pentsionisten %33,3ak 1.080€ edo azpiko pentsioa jasotzen du (217.246 pentsionista), horietatik %66,7a emakumeak direlarik. 1080€ eta 1520€ arteko pentsioa zenbat pentsionistek jasotzen duten kontabilizatzeko daturik ez dugun arren, sistemaren osotasuna kontutan izanik, batz besteko pentsioa 1459,5€koa izanik, ondorio logikoa da bigarren tramuan kokatzen diren pentsionisten kopuru handia beheko mugatik gertuago egotea, pentsio maximoa jasotzetik baino (1080€ jasotzetik gertuago, 3.059€ jasotzetik baino).

HEGO EUSKAL HERRIKO PENSIONISTA KOPURUA, PENSIO TRAMUAREN ARABERA			
	< 1080€	1080 – 3059,23€	3059,23 <
Pentsionista kopurua	217.246	374.484	59.754
%	%33,3	%57,5	%9,2

Iturria:

ETXEKO LANETARA EMANDA ZEUDEN GERO ETA EMAKUME GEHIAGOK EGIN DU LAN MERKATU PREKARIOANZKO IGAROBIDEA

HEHan 169.700 herritar daude etxeko lanetara emanda, horietatik %85,9a emakumea izanik. Beraz, inolako aitortza sozial zein ekonomikorik gabe, etxeko lanetan diharduten baina sistemari doan ateratzen zaizkion langileak dira. Azken bi urteetan, herritar inaktiboaren kopurua jaisten ari da, bereziki etxeko lanetara emanda dauden emakumeen kasuan.

Honek esan nahi du, etxeko lanetara emanda zeuden gero eta emakume gehiagok lan merkatutako igarobidea egin dutela. Lan merkatuan prekariedade egoera egiturazkoa dela kontutan hartuta, bereziki emakumeei eskaintzen zaien enpleguetan, eta zaintza ardua nagusia emakumearena izaten jarraitzen duela ikusita, sistemak emakumea lanaldi prekario bikoitzera behartzen du.

Testuinguru sozioekonomikoa aztertzen badugu, eguneroko bizimodua azken urteetan garestitu dena ikusita, pentsa liteke bizi unitatearen egoera sozioekonomiko kaskarrak behartuta egin duela lan merkatuako igarobidea.

ENPLEGUAK EZ DU BERMATZEN BIZITZA DUINA IZATEKO DIRU SARRERA NAHIKOAK

Enplegua iadanik ez da bizitza duina izateko diru-sarrera nahikoen bermea, zoritxarrez. Hori dela eta, ikusmira zabaltzea ezinbestekoa dugu, enplegua eta lan baldintzen azterketa egiteari uko egin gabe.

Langabeziak behera egin arren, Gutxieneko Soldata edo soldata baxuagoa duten gero eta herritar gehiago daude. Enplegua eduki arren, soldata prekarioak ugaritzen ari dira. Multzo honetan dauden herritarrak urtez urte gero eta gehiago dira.

14.Ikusmiran-en 1 aztertu bezala, ZAINZA LANETARA EMANDA EDO ENPLEGUA duten langileak bere osotasunean hemen kokatzen dira, langile kolektibo prekarioa dugu, hortaz. Aipatu azterketan, etxeko langileak, etxez etxeko laguntza zerbitzua eta erresidentzietako langileen soldaten batz bestekoak aztertu genituen.

ABERASTASUNAREN BANAKETAK EZ DU AUKERA BERDINTASUNA BERMATZEN ETA HERRITARREN ARTEKO EZBERDINKERIAK HANDITUZ DOAZ

Hego Euskal Herrian aberastasuna ez da modu orekatuan banatzen eta ondorioz, gero eta herritar gehiago daude egoera zaugarrian edota pobrezia zein bazterketa sozialerako arriskuan. Era berean, Babes Sozialerako Sistemak porrot egin du, eskubide sozialak unibertsalizatetik urrun, oinarritzko zerbitzu publikoak murriztu zein pribatizatzen baitira (osasungintzaren kasua nabarmen) edota errentaren gero eta zati handiago bideratzen baitugu oinarritzko eskubide hauek eskuratzera (oinarritzko elikagaiak edo etxebizitza, kasu).


LANGILEON LAN ETA BIZI BALDINTZEN AZTERKETA, EREMUZ EREMU

LAN MERKATUA GERO ETA PREKARIOAGO DA

Afiliazioak gora egin du, bereziki egoera zaugarrian dauden kolektiboen artean

Afiliazioak gora egin du, Erregimen Orokorrean 1.059.392 afiliatu zeuden 2023ko azken egunean Hego Euskal Herrian. Azaroan hileko azken eguneko afiliatu kopuru maximoa izan genuen (1.055.869) eta antzerako balioetan mantendu gara abenduan. Grafikoan ikus daitekeen modura, langile kopuruak, orokorrean, gora egin du. Azpimarratzekoa da, emakumeen artean, afiliazioak izaniko gorakada.

ERREGIMEN OROKORREKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA HEGO EHN (2021-2022)



Iturria: EGSDN, guk egina

GRAFIKA HONEN
ESKALA MOLDATU
BEHAR IZAN DUGU
SARTU AHAL IZATEKO

Modu nabarmenean, lan merkaturako igarobidea egin duten emakumeen kopuruak egin du gora, 30.200 emakume batu baitira lan merkatura azken urtean. Azpimarratzekoa da era berean, inaktiboen artean, etxeko lanetara emanda zauden emakumeen jaitsiera, azken urtean 21.700 gutxiago baitira. Beraz, esan dezakegu etxeko lanetara emanda zeuden emakumeak direla lan merkaturako igarobidea modu nabarmenean egin dutenak.


Egun emakumea da etxeko lanen (etxeko produkzioaren %67,2a emakumearen esku jarraitzen baitu) eta haur zein menpeko pertsonen zaintzaren ardura nagusia izaten jarraitzen duena. Lan merkaturako igarobidea, hortaz, etxeko lanen ardura nagusia bizkar gainean hartuta egin du.

Emakumea gehiengoa den sektore feminizatuetan lan baldintza prekarioak nagusi direla edota sexu-generoaren araberako arrakala egiturazkoa dela kontutan izanik, lan merkatu prekarioarantzko igarobidea egin duela esan daiteke.

Bizitzaren garestitzeak egunerokoan izaten ari dituen ondorioak ezagutuz, pentsa liteke, bizi unitatearen egoera sozioekonomiko kaskarrak behartu duela igarobidea egitera, lanaldi prekario bikoitzera, alegia.

Lan baldintza prekarioak dituzten sektoreetako afiliazioa da igo dena

Afiliazioa sektoreka azertzen dugunean, langileak zein sektoretan lanean edo lan bila dabiltzan jakingo dugu.



Grafikoan ikus daitekeen bezala, zerbitzuetan oinarrituriko ekonomia nagusia da gurean. Zerbitzu sektoreak goranzko joera nabarmena du eta 2009an afiliazioaren %66,6a zerbitzuetakoa bazen, 2023an %73,3a da. Azken hiru urtetan 53.225 afiliatu gehiago eskuratu ditu.

Eraikuntza zein industria sektoreetan 2008.urteko krisialdi ekonomikoaren ondorioz suntsitu zen enplegu kopurua gaur gaurkoz ez da berreskuratu. Egun, afiliazioa pixkanaka igotzen ari den arren, zerbitzuak sektorean baino lausoagoa da igoera.

- Eraikuntza sektorearen afiliazioa 2009an %7,8koa zen bitartean, 2023an %4,6ra jaitسي da
- Industria sektorearen afiliazioa %25,4koa zen 2009an, 2023an %21,9 izatera jaitسي delarik.


Beraz, lan baldintza prekarioenak dituen zerbitzuak sektoreak afiliazioaren gorakada etengabea duen bitartean, herri baten garapenean estrategikoa den industria sektorearen eraispena ere etengabea da.

Lan baldintza prekarioak kronifikatu dira

Afiliazio datuen bidez, langileen egoerari buruzko datuak eskuratu eta egoera orokorra zertzelatu dezakegu. Jarraian, esanguratsuenak izan daitezkeen adierazleak bildu ditugu:

- **Behin behineko kontratuak** behera egin arren, hilabetez hilabete sinatzen diren kontratuen behin behineko – mugagabe proportzioak goia jo duela esan daiteke, azken hilabeteetan antzerako proportzioan mantendu (%78,8 - %21,2 2023ko abenduan)
 - Emakumeen artean kontratu mota hau zabalduago egonik, gizonezkoen artean gutxitu da gehien kontratu mota hau: 2021etik 2023 bitarte, gizonen artean %37,5 murriztu dira behin behineko kontratuak, emakumeen artean, aldiz, %28,6a.
 - Beste behin ere, argi gelditu da behin behinekotasunarekin amaitzera zetorren espainiar estatuko lan erreformak goia jo duela, ez baita gai lan merkatuko desoreka hau zuzentzeko.


BEHIN BEHINEKO KONTRATUEN GARAPENA



• **Aldizkako kontratu finakoak dira proportzionalki gehien handitu direnak** azken urtean, mugagabeak %4,77 handitu diren bitartean, aldizkako finakoak %8,7 handitu baitira. Kontratu mota hau da emakumeen artean zabalduago dago (emakumeen kontratuen %5,4a aldizkako finakoa da), gizonezkoen artean baino (gizonezkoen kontratuen %2,8a).

- Urte osoko bilakaera aztertuz gero, udaldian arreta berezia deitzen duen gertaera jazo zen. Izan ere, maiatzetik abuztura bitartean, emakumeen artean aldizkako finakoen kontratazioa %65,13 eten zen. Modu honetan, maiatzean 27.058 emakume bazeuden aldizkako kontratu finakoarekin, abuztuan 9.435ra jaitsi zen kopurua emakumeen artean. Udaldian hainbat sektore feminizatueta (ikastetxeetako garbitzaileak, jantokietako hezitzaileak....) oporrak mozorrazteko baliatu den kontratu mota izan dela esan daiteke.
- Gizonezkoen artean kontratu mota honen etetea %29,23koa izan da udaldian. Beraz, askoz proportzio txikiagoan gertatu bada, kontratu mota honen erabilera "maltzurra" oporren testuinguruan zabaldua dagoela esan daiteke.

ALDIZKAKO FINKOEN BILAKAERA



4 emakumetik batek lanaldi partziala du

- Afiliaturiko emakumeen %25,5ak du lanaldi partziala, gizonen artean %11ak duen bitartean. Beraz, 4 emakumetik 1k lanaldi partziala du, 10 gizonetik bakarrak duen bitartean.
- Lanaldi osoan, aldiz, kontrako joera nagusitzen da. Izan ere, afiliaturiko emakumeen %57,2ak lanaldi osoan dagoen bitartean, afiliaturiko gizonen %78,7a dago lanaldi osoan
- Lanaldi partziala lan baldintza prekarioen adierazle izanik, emakumeen enpleguaren kalitatea kaxkarragoa dela ondorioztatzen dugu.

Langabeziak enpleguaren errealitatearen adierazle izateari utzi dio.


Langabezia tasa %7koa da Hego Euskal Herrian². Tasa honek herritar aktiboen artean langabetuen proportzioa zenbatekoa den neurtzen duen eta azken urteetako baxuenetakoa dela aitortu arren, azterketa honetan behin eta berriz errepikatzen ari garen bezala, langabeziak utzi dio enpleguaren kalitate-adierazle izateari. Hala eta guztiz ere, aztertu beharreko adierazlea izaten jarraitzen du. Kasu honetan, azpimarratu behar dugu emakumeak langabezia tasa altuagoa duela %8,55a, gizonen artean %7,57 den bitartean.

ZAINZA SEKTOREA FEMINIZATUA, PREKARIOA ETA PRIBATIZATUA


14. Ikusmiran-en egindako azterketatik ateratako ondorioak ditugu. Langileon lan eta bizi baldintzak aztertzen ari garen honetan, hainbat ondorio mahai gainera ekarriko ditugu, lan merkatuaren ikuspegi osatua izan dezagun.

- Emakumea gehiengo den sektorea da FEMINIZATUA dagoena. Jarraian agertzen diren datuek berresten duten bezala, zaintza enpleguetan diharduten langileen gehiengo emakumea da:
 - Etxeko lanetara emanda dauden artean, %88 emakumea da
 - Etxeko langileen sistema berezian afiliaturiko langileen %96,13 emakumea da (eta %43,34a espainiar estatutik kanpoko jatorria du). Estatistiketan neurtu ezin badaiteke ere, %30a ezkutuko ekonomian lan egiten duela estimatzen da.
 - Kontzertatuta dauden Helduen Egoitzetako langileen %84,13a emakumea da
 - Zerbitzu sozialetako langileen %68,22 emakumea, zerbitzu pertsonalak (zaintzaileak, etxez etxeko laguntzaileak...) eskaintzen dituzten langileen %84,33 emakumea
- Lan baldintza PREKARIOAK dituen sektorea da, etxez etxeko zerbitzuko, erresidentzietako zein etxeko langileen batez besteko soldaten azterketa eginez, Gutxieneko Soldatetik behera jasotzen dute.
- PRIBATIZATUA dagoen sektorea. Jarraian agertzen den grafikoan argi ikus daitekeen bezala, erresidentzia pribatuen finantziazioaren gero eta zati handiagoa funts publikoetatik dator (eta alderantziz)

ERRESIDENTZIEN FINANTZIAZIOA




Bizitzaren sostengurako ezinbestekoak diren zaintza lanak prekarioak izan arren, erregimen orokorrean afiliaturiko langileen %8,38a lirateke eta behean agertzen den gatzan ikus daitekeen bezala, BPG-arekiko %25,75eko pisua luke, industria eta eraikuntza sektoreak batuta baino pisu gehiago.



EGUNEROKO BIZITZAK ETENGABE GARESTITUZ JARRAITZEN DU

Azken bi urteetan KPI-ak etengabeko igoera izan du, herritarron eguneroko bizitzarako beharrezkoak diren produktuen prezioen igoera nabarmena eraginez. Azken hilabeteetan KPI-ak beheranzko joera izan badu ere, 2020.urtearekin alderatuz gero, balio oso altuetan mantentzen da, 2023ko abenduan Hego Euskal Herrian %3,2an baitzegoen.

KONSUMO PREZIOEN INDIZEA. 2021 OINARRIA




KPI igoeraren arabera soldata igoerarik ez: langileok erosahalmenean galera izan dugu

Negoziazio Kolektiboan soldaten igoera aurreko KPI-aren arabera aldarrikatu ohi dugu. Bada, jarraian agertzen diren grafikoetan ikus daitekeen bezala, adostu diren soldata igoerak bai EAE zein Nafarroa Garaian KPIaren azpikoak izan dira. Modu honetan, Nafarroa Garaian %4,10eko soldata igoerak adostu ziren, KPIa %6,4koa izan zen arren. EAE-n, %5,04ko soldata igoerak adostu ziren, KPIa %5,4ean egonik.


Egoera puntuala ez dela azpimarratu behar dugu, KPI-aren hazkunde garaietan errepikatzen den errealitatea baizik, langileon erosahalmenean galera urtez urte pilatuz. KPI-aren hazkundera negatiboa edo oso txikia denean, langileon borrokari esker, soldaten igoera KPI-aren goitik izatea lortu izan bada ere, bizitza are eta garestiagoa den garaietan oso zaila izaten da.

SOLDATA IGOERA ETA KPIA (NFE)



Iturria: INE eta Espainiako Estatuko Lan eta Ekonomia Sozial Ministerioa


SOLDATA IGOERA ETA KPIA (EAE)



Iturria: INE eta Espainiako Estatuko Lan eta Ekonomia Sozial Ministerioa


Kontutan hartu behar dugu, grafikoetara eraman ditugun adosturiko soldata igoerak Lan Hitzarmenetan adosturikoak direla eta Lan Hitzarmenik gabeko langileak hemendik kanpo daudela.

- EAE-ren kasuan afiliazioaren %54,06ari eragiten diote soldata igoera hauek. Edo beste modu batera esanda, besteren kontura lan egiten duten langileen %72,29ari. Lan Hitzarmen baten estaldurapean dagoen langileen gehiengoa, %56,36a, gizona da.




* Erregimen orokorrean altan dauden langile guztiak hartu ditugu kontuan, baita lehen sektoreko eta etxeko langileen erregimenean altan daudenak ere.

HITZARMENPEAN DAUDEN LANGILEAK GENEROAREN ARABERA. (EAE, 2023 URRIA)



Iturria: LHK

- Nafarroa Garaian, afiliazioaren %41,19a dago Lan Hitzarmen baten estaldurapean.



Oinarrizko lan baldintzen aldeko lan gatazkak areagotzen ari dira.

LAB sindikatuak publiko eginiko 2023ko Ekintza Sindikaleko Txostenean adierazi bezala, gero eta borroka gehiago zabaltzen dira lantoki eta sektoreetan enpleguaren defentsan, bizitza bizigarrien alde eta prekaritatearen aurka. Lan merkatuaren argakia osatu dugunean enpleguaren kalitatean dagoen prekaritate orokortua baieztatu egiten du datu honek.

Zentzu honetan, konfliktibitatea ere nabarmen igo da 2021 eta 2022.urteen artean. Lan Harremanen Kontseiluak publikaturiko EAEko datuen arabera, greba deialdiak %37,9 handitu ziren, parte harturiko langileen proportzioa %620,6 eta lan egin gabeko jardunaldiak %173,1


Urtea aurrera joan ahala, lantoki ezberdinetan gatazkak areagotuz doaz eta Lan Hitzarmenen gaineko adostasunak itxiz. Beste behin ere, ekintza sindikal eraginkor, efektibo eta langileen aldekoa burutzen dugularen adierazle garbia.

PENSIONISTAK EROSAHALMENEAN GALERA METATUA DUTE

Urte berrirako pentsioak, aldiz, aurreko urteko abenduko batez besteko KPIaren arabera eguneratzen dira. Dena den, pentsioen azken erreforman pentsioen eguneratzea ez da KPIra binkulatzen, erreferentziatzen hartzen da soilik. Hori dela eta, espainiar Gobernuaren erabaki politikoa (puntualea) izan da 2024rako pentsioak KPI-aren ginetik eguneratzea. Modu honetan, pentsio kontributiboak %3,8 igoko dira eta ez kontributiboak %6,8a (KPIaren abenduko batez bestekoa %3,1a izan den bitartean).


Jarraian agertzen den grafikoan 2011.urtetik hona KPIak eta pentsioen eguneratzeak izaniko bilakaera aztertu dugu eta argiki ikus daitekeen bezala, KPI altuko garaietan pentsioak azpitik eguneratu dira. 2024. urteko pentsioen kasuan, aldiz, KPIaren araberrako pentsio igoera egon da.

PENTSIOAK ETA KPI, BILAKAERA (2011-2024, %)



Pentsionistek erosahalmenean izaniko galera aztertzeko, ordea, bizitzaren garestitzea urteetan zehar pilatu behar da, hau da, pentsioek izaniko igoera metatutako KPI-arekin gurutzatu behar da. Izan ere, urte hasieran ez da markagailua 0-tik hasten eta oinarritzko produktuen garestitzea aurreko hilabeteko balioaren gainean metatzen da. Hori dela eta, jarraian agertzen den grafikoan urtez urte metatutako KPI-aren eta pentsioen bilakaera aztertu dugu. Bi marren artean gelditzen dena de pentsiodunek galduriko erosahalmena 2011. urtetik.


PENTSIOEN ETA EROSAHALMENAREN BILAKAERA (2011-2024)



ETXEKO KONTSUMOA BEHERANTZ DOA, OINARRIZKO PRODUKTUETAN GEHIAGO GASTATU ARREN

Etxeetako kontsumo gastuak BPGrekiko nabarmen egin zuen behera pandemia garaian (HEHan %61aren bueltan), ustez hartu ziren salbuespeneko neurrien ondorioz. 2022 urtean, ordea, kontsumoa ez da pandemia aurreko datuetara bueltatu. Beraz, atzean arrazoi sakonagoak daudela ondorioztatzen dugu. Batetik, bizitzaren garestitzeak eragin zuzena izan du, oinarrizko produktuaren prezioak etengabe gorantz baitoaz. Bestetik, eta aurrekoarekin lotuta, KPI-aren araberako soldata igoerarik ez da egon eta oinarrizko produktuaren prezioak soldatek baino gehiago igo dira. Kasu honetan, egoera zaugarrian dauden herritarrengan eragin handiagoa du. Azkenik, pandemia garaian aurrezurikoa gastatuz doa, eguneroko bizitzara bideraturiko gastuetan, kasu askotan. Beraz, gehiago gastatu arren, gutxiago kontsumitzeko gaitasuna dugula esan dezakegu.

Jarraian agertzen den grafikoan, bizi unitateen kontsumoa (mila eurotan) eta horrek BPG-rekiko tasa (%tan) duen eragina agertzen da. Esan bezala, 2018. urteko balioetatik oso behetik.



Bizi unitatearen egoera sozioekonomikoak behartuta, kontsumo ohiturak aldatu dira. Kontsumo ohitura aldaketa honen atzean ez dago herritarrak harturiko erabaki kontzientea, baizik eta egoerak beharturiko gertaera bat. Ondorioz, pentsatzekoa da kontsumo ohituren aldaketaren atzean, ez daudela osasun edota arrazoi ekologikoak.

2019tik 2022ra nabarmen egin du gora elikagai eta edarien gastua, %15,8koa izanik 2022an produktu hauetan egiten den batez besteko gastua bizi unitateko, 2019tik %17,52 handitu delarik. Etxebizitza gastua, aldiz, %34,4koa da, azken hiru urtetan %7,59 handitu delarik. Oinetako eta jantzietan egiten dugun gastuak, aldiz, behera egin du %12,82 eta aisialdia zein kultura gastuak %13,02 behera egin du azken hiru urteetan.

ABERASTASUNAREN BANAKETA GERO ETA DESOREKATUAGOA, JENDARTE GERO ETA DUALIZATUAGOA

HEHak aberastasuna modu justuan birbanatzeko tresnak izan arren (politika fiskala, langileon soldatak, aurrekontu publikoak...), ez dira baliatzen eta kapital errentak babesten dira, lan errenten kaltetan.

Gini indizea

GINI indizeak herrialde bateko biztanleriaren artean errentaren banaketan dauden ezberdintasunak neurtzen ditu (0-tik gero eta gertuago, berdintasun handiagoa). 2008.urtetik 2021. urtera arteko bilakaera aztertzen baldin badugu, krisi ekonomiko garaietan GINI indizea handitu egin dela ikus daiteke, kapital eta lan errenten arteko ezberdintasunak areagotuz. Zergatia ulertu ahal izateko, bi arrazoi azpimarratuko ditugu:

- Bata, egoera zaurgarrietan dauden herritarrak direla krisialdi ekonomikoen ondorio kaltegarrienak pairatzen dituztenak
- Bestea, testuinguru horietan harturiko erabaki politikoek herritarron beharrak zuzendu beharrean, ekonomiaren interesak zuzentzera bideratzen direla.

Ikusteke dago 2022tik pairatzen ari garen bizitzaren garestitzeak zer nolako inpaktua izango duen indize honen balioetan.

GINI INDIZEAREN BILAKERA 2015 -2022 (EAE, NAFARROA ETA EUROPAR BATASUNA)														
	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
EAE	29,6	30,2	31,6	32,6	31,9	29,5	29,3	30,2	29,1	29,6	30	29,4	28,8	29,3
Nafarroa	27,2	28,7	30,5	29,9	30,3	28,3	28,1	26,2	27,7	26,5	24,7	24,3	27,3	28,7
EB-28	31	30,6	30,8	30,8	30,5	30,5	31	31	30,8	30,6	30,2	30,6	30	30,1

S80/20 koefizientea


S80/S20 koefizienteak soldata baxuenak eta altuenak dituzten herritarren arteko erlazioa aztertzen du. 2010tik 2021era S80/S20 koefizientearen balioa etengabe handituz doa, arrakala handituz doalako.

- Nafarroan, diru sarrera altuenak dituzten herritarren %20ak, diru sarrera baxuenak dituen biztanleriaren %20ak baino 5,2 aldiz errenta handiagoa du.
- EAE, aldiz, 5 aldiz handiagoa. +

S20/S80 RATIOAREN BILAKAERA, 2010 - 2021												
	2010	2011	2012	2023	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Nafarroa	4,7	4,8	4,5	4,9	4,8	4,6	4,4	4,1	3,8	4,5	5,1	5,4
EAE	6,3	6,5	5,2	5,2	5,4	5	5,1	5,1	5,3	4,8	5	5
EB	5	5	5	5,2	5,2	5,2	5,1	5,1	5,1	4,9	5	4,7

BPGrekiko soldatek duten pisua beherantz

Aberastasuna banatzeko tresna garrantzitsuenetakoa soldatak dira. Grafikoan ikusten den bezala, 2020.urteko ez-ohiko egoeraren ondorioz, soldaten pisua BPG-arekiko beherantz doa eta 2022an 2019.urteko balioetatik behera kokatzen da.



Eskuartean ditugun azken datuak 2022koak dira, non BPGak %10eko igoera izan zuen. Hala ere, soldata igoerak proportzio txikiagoan igo ziren eta ondorioz, BPG-arekiko soldatek duten pisua galtzen ari dira. Honek esan nahi du, aberastasuna sortu arren, aberastasun hori ez dela lan errenten bidez modu orekatuan birbanatzen. Kapital errentek mozkinen bidez euren poltsikoetara bideratzen dute sorturiko aberastasunaren zati handiena, gehiengoaren egoera gero eta prekarioagoa den bitartean.

HEH-ko lan errenten pisua BPG-arekiko (%45,7) Europar Batasunaren batz bestekoaren azpitik dago (%46,8). Beraz, aldaketarako margena egoteaz gain, aberastasuna modu orekatuagoan banatu daiteke, borondatea baldin badago.

GERO ETA HERRITAR GEHIAGO POBRESIA ETA BAZTERKETA SOZIAL ARRISKUAN

Aberastasunaren birbanaketan dauden desorekak, ezberdintasun sozialak areagotzen ditu de facto, herritarren artean aukera berdintasun printzipioa apurtuz. Beraz, batzuek aberatsagoak diren bitartean, besteak gero eta zailtasun handiagoak dituzte kalitatezko bizitza aurrera eramateko. Pobrezia eta bazterketa soziala errealitate bat da gure herrian eta arrisku egoera horietan kokatzen den herritar kopurua iraunarazteak, sistemaren egiturazko gabezia baten aurrean kokatzen gaitu. Egoera hauek guztiak neurgarriak dira. Jarraian, hainbat adierazleren arabera

Arope tasa deritzonak pobrezia edota bazterketa sozialerako arrisku egoeran bizi diren herritarrak kontabilizatzen ditu, horretarako adierazle ezberdinak baliatuz.

2022.urtean biztanleriaren %15,7a EAE-n eta %14,5a Nafarroa Garaian pobrezia eta bazterketa sozial arriskuan zegoen, hau da, 439.580 herritar Hego Euskal Herrian. Sexu-genero arrakala handitzen ari da, emakumeen arrisku tasa handiago eta etengabe handitzen ari delarik. Bereziki Nafarroan egin du gora, 2015.urteetik %5,8a

Pobrezia arriskuan pobreziaaren atalasetik beherako (errenta medianaren %60tik behera) diru-sarrerak dituzten herritarrak kokatzen dira. Eurotara eramanda, EAEn urtean 12.983€ko diru sarrerak dituztenak eta Nafarroan 12.727€tik beherakoak barnebiltzen dira. 2008.urtea erreferentzia gisa harturik, pobrezia tasak gora egin du EAE-n %8a eta Nafarroa Garaian %20a.

Pobrezia larrian, aldiz, errenta medianaren %40a edo baxuagoko diru-sarrerak dituzten herritarrak egongo lirateke. Hau da,

hilabetean 480€ (14 pagatan) edo diru-sarrera txikiagoak dituzten herritarrak pobrezia larrian daude. 2022. urtean EAEn biztanleriaren %5,2a zegoen pobrezia larrian (2021. urtetik 1,2 puntu gehiago) eta Nafarroa Garaian %6,8a (2021.etik 0,9 puntu gehiago).

Egiturazkoa den errealitate baten aurrean gaude, pobrezia eta bazterketa egoeran herritar multzo handi bat mantentzen delako, egoera honetatik ateratzeko baliabide propio zein publiko gutxirekin.

Gabezia material eta sozial larria

Agenda 2030-ak exigitzen dituen aldaketetara egokitzeko, metodologia aldaketa eman da neurketa honetan. Modu honetan, gabezia egoerak 9 osagai izatetik 13 izatera pasa da, eta atalasea osagai hauetako 9 kontsumitzeko ezintasuna izatera zabaldu da (lehen 9tik 4 kontsumitzeko ezintasuna hartzen zen kontutan).

Metodologia aldaketan modu honetan zehazten ez bada ere, pentsa liteke errealitatean jazo direnek, bereziki bizitzaren garestitzeak eta enpleguaren prekarietateak, eragin zuzena izan dutela gabezia material zein sozial larria neurtzeko aldagaien zabalitzean. Adibide gisa, orain "hondaturiko arropa berriagatik ordezkatzeko ezintasuna edota baldintza onetan dauden bi zapata edukitzea" edota "norbere intereseko kontuetan diru kantitate txiki bat gastatzeko ezintasuna" item-ak batu dira.

Modu honetan, 2022. urtean Nafarroa Garaian biztanleriaren %5,6a zegoen gabezia material eta sozial larri egoeran, emakumeen artean %6,5 eta gizonen artean %4,6a. Emaizta nagusiak, hauexek:

- %24,7ak ezin du etxetik kanpo oportetara joan, gutxienez aste bat urtean
- %21,5ak ezin dio aurre egin aurreikusi gabeko gastuei
- %20,2ak ezin ditu altzari zahar edo hondatuak ordezkatu
- %10,8ak ohiko etxebizitza gastuekin loturiko ordainketatan edota epeka egindako erosketatan atzerapenak, azken 12 hilabeteetan

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian portzentaia txikiagoa da, %3,7a, hain zuzen ere, baina kasu honetan ere emakume gehiago daude egoera honetan (emakumeen artean %3,9a eta gizonen artean %3,4a)

- %18,7ak aurreikusi gabeko gastuei aurre egiteko ezintasuna
- %18,7ak etxetik kanpo oportetara joateko ezintasuna, urtean gutxienez aste bat
- %14,3ak altzairu zahar edo hondatutakoak ordezkatzeko ezintasuna
- %9,3ak neguan etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko ezintasuna

BIZI BALDINTZA GERO ETA KAXKARRAGOAK EGON ARREN, OINARRIZKO ESKUBIDEAK UNIBERTSALIZATZETIK URRUN


Gero eta herritar gehiagok prekarietate ekonomiko egoeran bizi arren, hau da, enplegua eduki arren, bizitza duina bermatzeko diru-sarrera nahikorik gabe, kalitatezko zerbitzu publikoak edota oinarrizko eskubide sozialak herritar guztiontzat bermatu gabe jarraitzen dutela. Are gehiago esango dugu, osasungintza publikoaren kalitatea okertuz baitoa eta etxebizitza eskubidea eskuraezin bilakatzen ari da, egoera zaurgarrian dauden herritarrentzat, bereziki.

Etxebizitza gero eta garestiagoa da

Etxebizitza gero eta garestiago dago, aztertutako adierazle ezberdinek baieztatzen duten bezala: metro karratua gorantz doa, hipoteken interes tasa maximo historikoetan dago; alokairura soldataren gero eta proportzio handiagoa bideratzen da – 2022an Nafarroa Garaian soldata garbiaren %40a eta EAE %52a, urtez urte handituz doan proportzioa; etxebizitza jabetzan erosteko gero eta urte gehiago behar dira...

Jarraian, etxebizitzaren prezioaren Indizeak Nafarroa Garaian eta EAEn hurrenez hurren, 2015-2023 urteen artean izaniko bilakaera biltzen duen grafikoa aurkituko duzue, non argi eta garbi ikusten den goranzko garapena.

ETXEBIZITZA INDIZEA, 2015 -2023



Biztanleria pobreen gero eta proportzio handiagoak du etxebizitza gastu altua

Etxebizitza ordaintzeko soldataren gero eta proportzio handiagoa bideratzen da, izan alokairua ordaintzera edota etxebizitzan jabetzan eskuratzen. Hala ere, soldata arrakalak honetan ere sortzen du ezberdinkeriarik. Izan ere, lan errenta baxuenek etxebizitza gastu handiagoak dituzte eta alderantziz. Arope Informeak emaniko datuen arabera, errenta baxuak dituzten herritarrek etxebizitza gastu handiagoak dituzte, bestelako gastuei aurre egin ezinik kokatuz.

Gauzak horrela, EAEko biztanleria pobreen %47ak, bere errentaren %40tik gorako etxebizitza gastuak izan zituen 2022an, etxebizitza gastu altu gisa kontsideratzen dena. Biztanleria pobreen artean, gero eta proportzio handiagoa du etxebizitza gastu altuak (2008an biztanleria pobreen %26,4ak zuen etxebizitza gastu altua, 2022an baino ia erdiak).

Nafarroa Garaian joera errepikatzen da eta egoera larriagoa da, etxebizitza gastu altua duen biztanleria pobreen proportzioa handiagoa baita. Modu honetan, Nafarroako biztanleria pobreen %60,6ak du etxebizitza gastu altua (erabilgari duen errentaren %40a edo gastu altuagoa). 2008an biztanleria pobreen %48,5ak zuen etxebizitza gastu altua.


Etxebizitza beharra duten herritarren %80,5ak ez du diru sarrerarik edota dituen diru-sarrerak ezegonkorak edo ez-nahikoak dira

Etxebizitza beharra duten herritarren artean, diru sarrera ez-nahikoak, ezegonkorak edota diru-sarrerarik ez dutenak %80,5a dira. Horien artean, %33,3ak ez ditu diru-sarrerak.

Beraz, beharra eduki arren, diru sarrera gabezia edo ez-nahikotasunak eramaten du etxebizitza eskubidea asetzeko ezintasunera. Aldiz, bizi unitateak etxebizitzaren erregimenaren arabera aztertzen baditugu, nabaria da herritarren artean etxebizitza jabetzan eskuratzeko dagoen joera.

Europar Batasunean, joera hori zertxobait aldatzen dela atzeman daiteke, etxebizitzaren %30a alokairuan baitago. Herritarren berezko joera bat izatek urrun eta etxebizitza prezioen garestitzearen bilakaera ikusita, politika publikoen bidez egiten denak garrantzia handia du alokairua sustatu, lagundu edota prezio onargarrietara mugatu ahal izateko.

ETXEBIZITZA UNITATEAK JABETZAREN ARABERA



Osasungintza pribatizatzen jarraitzen dute, zerbitzuaren kaltetan

2020.urteko osasun larrialdi ez-ohikoaren ondoren, osasungintza zerbitzu publikoak indartu edota lehengoratzea zegoen eta datuak ikusita, zerbitzuaren kalitatearen kaltetan harturiko neurriak pairatzen ari gara herritarrok.

Bata, ohe kopuruaren murrizketa ez dator bat biztanleriaren bilakaera edota demografiaren aldaketarekin

Ospitaletako ohe kopuruak behera egitea Europa osoan gertatzen ari den fenomeno izanik, ez dator bat biztanleriaren bilakaerarekin edota aldaketa demografikoekin.

Izan ere, EAEn, 2009tik 2021. urtera arte, populazioaren igoera %1,77koa izan den bitartean, ohe kopurua %9,5 murriztu da.

Nafarroan 2,4 ohe daude 1.000 biztanleko eta EAE-n 2,8. Demografiaren bilakaeraren arabera, biztanleria gero eta zaharragoa da eta arreta soziosanitarioaren ikuspegitik, zaintza arreta handiagoa eta, behar bada, menpeko egoera gehiago aurreikus daitezke.

Bestea, itxaron zerrenda gero eta luzeagoak

Azken bi urteetan, espezialistaren lehen kontsultara joateko itxaron zerrendan dagoen herritar kopurua bikoiztu baino zerbait gehiago egin da, 2 urtetan 45.353 herritar gehiago dago espezialistaren lehen kontsultara joateko zain.

ESPEZIALISTAREN LEHEN KONTSULTARAKO ITXARON ZERRENDA

	2021	2022	2023
Guztira	24.179	39.034	69.532
1.000 biztanleko tasa	10,85	17,48	31,08
Itxindako batezbesteko egunak	24 egun	29 egun	44 egun
60 egun edo gehiago itxoin beharreko %	%6,7	%11,8	%27

Operazio baten zain dauden herritar kopurua ere nabarmen handitu da, %24,23a hain zuzen ere. Kasu honetan, bereziki aipatzekoa da 6 hilabete edo gehiago itxaron beharrekoen proportzioak izan duen igoera, 2019.urtean existitzen ez zen proportzioa, 2023.urtean %4,5koa izatera iritsi dena.

ITXARONALDI KIRURGIKOA

	2019	2021	2022	2023
Guztira	18357	19327	22277	24333
1000 biztanleko %	%8,39	%8,67	%9,98	%10,88
Itxaron beharreko batezbesteko egunak	49 egun	62 egun	64 egun	68 egun
Sei hilabete edo gehiago itxaron beharreko %	%0	%4	%3,9	%4,5

